

14/08/2009

Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoak Viticus talde argentinarrarekin ospatuko du bere 20. urteurrena

Ormaiztegi, Gipuzkoa. Viticus argentinar rock talde famatua Ormaiztegin egoitza duen Zumalakarregi Museoak bere lehenengo 20 urteak ospatzeko antolatu dituen ekitaldietan protagonista izango da, izan ere kointzidentzia baita baina taldeko hiru kide Tomas Zumalakarregi general karlistaren ondorengo edo ahaide dira eta bat egin nahi izan dute partaidetza honekin museoak bere 20. urteurrena ospatzeko antolatutako egitarauarekin.

Ekimena, taldeko kideetako bat bere arbasoei buruz ikertzen ari zela Museoarekin -- ' Euskal Herriko XIX. mendea ezagutu eta baliatzeko erreferentzia zentru ' tzat agertzen du Museoak bere burua-- harremanetan hasitakoan sortutako adiskidantzari zor zaio.

Ormaiztegiko Udala ere partaide duen lankidetzan antolatua da kontzertua eta herriko pilotalekuan gauzatuko da irailaren 5ean. Musutruke izango da eta zahar zein gazteen partaidetza espero da. Antolatzaileak hasiak dira dagoeneko azpiegitura alorra lantzen, kontzertua baitaratuko duen inguruari behar bezalako sarbideak, aparkalekuak eta baliabideak bideratzeko. Ormaiztegiko emanaldiaren ondotik, Viticus-ek bere 2009 tour-arekin segituko du.

Viticus rock taldea

' Riff ' izan zen rock gogorra Argentinan atxiki zuen taldea diktaduratik mende aldaketaraino. Kontzertua dela-eta Museoak plazaratu duen ohar batean azaltzen denez, geroztik sortu ziren hamaika talderen erreferentziagune eta etsenplu. Hura desegin zenean, Pappo-k eta Vitico-k (gitarra bata, baxua bestea) bakoitzak bere bidea hartu zuen.

Victor ' Vitico ' Bereciartuak, Zumalakarregi generalaren ondorengoa bera, talde berri bat sortuz segitu zuen, bertara jende gazteagoa eta bere familiakoa bilduz. Bere seme Nicolas eta iloba Sebastian gitarrajole dira, eta familiatik datorkie musikarekiko zaletasuna. Bateria gisa ' Vasco ' Martin Urionagüena hartu zuten, eta ' betiko rocka ' egiten duen taldea sortu zuten, ' guztien gogokoa den hori, eta galtzea inork nahi ez duena ' .

Vitico Bereciartua

Taldeak berealdiko soinu aparta lortu eta energia horren uhinari segituz Argentinan etorkizun onenetakoa marrazten zuen gitarrajole bat eurenaganatzea erabaki zuten taldekideek, Ariel Rodriguez, kantaria aldi

berean. Bostekoa bihurtu ziren, beraz, hiru gitarra, hiru kantari eta lau konpositore.

Taldearen abiada Argentinan, 2005ean banda rebelazio izendatuak izan ondoren, itzela izan da. Gaur egun bertako bandarik errespetatuenen artean daude rockaren izpiritua kontserbatu dutelako, hego aireez eta doinu propioez, hori guztia ikuskizun ederra eskainiz antologiako hiru gitarrajole oholtza gainean, erritmo oinarri izugarria lagun, guztia rockaren historian dagoeneko izena zizelkatua duen pertsonaia zuzendari: Vitico Bereciartua.

Taldeak gaur egun dituen kideak:

- Víctor "Vitico" Bereciartua. Baxua eta ahotsa
- Nicolas Bereciartua. Gitarra
- Ariel Rodríguez. Gitarra eta ahotsa
- Sebastian Bereciartua. Gitarra
- Pancho Isola. Bateria